

/ Nabarmenezkoak

- > 760.000€ Bidezabaleko 1. eta 2. arrapalak eta Ereagako igogailua berritzeko (2. or.)
- > Alicia Moralesek eta Antonia Jiménezek irekiko dute "Neguan Flamenco" zikloa (3. or.)
- > Pilates solidarioa Valentziaren alde, Sarekide Elkarteak antolatuta (4. or.)



* Ekialdeko Errege Magoak Getxora hurbiltzen ari dira

(3. or)

Umorezko antzerkia. Hilak 11, larunbata, 20:00etan, Muxikebarrin, Oscar Terolek "¡Ay Dios!" komedia antzetzuko du. 10€.

Komedia musikala. Hilak 12, igandea, 16:30ean eta 19:00etan, Muxikebarrin, "Go!Azen", Pausokarekin. 8€.

A-
GENDA

%6 haziko da oraingo ekitaldiarekin alderatuta

Hasiera batean onetsi da 2025. urterako Getxoko Aurrekontu Orokorren Proiektua, 137 milioi euro baino gehiagokoa

2025. urterako Aurrekontu Orokorren Proiektua, 137.182.112 milioi eurokoa (2024koa baino %6 handiagoa), onartu zen hasiera batean pasa den abenduan egindako ezohiko osoko bilkuran, udal gobernuaren (EAJ/PNV eta PSE-EE) aldeko botoarekin, PPren abstentzioarekin eta EH-Bilduren eta Elkarrekin Podemosen kontrako botoekin. 2024an bezala, PPren abstentzioak aurrekontuaren onespina ahalbidetu zuen, zehazki, udal-gobernuak eta alderdi horrek lortutako akordioaren ondorioz, tasak eta zergak ez gehitzea eta itundutako 35 ekintza gauzatzea (aurrekontuari egindako 17 zuzenketaren bidez) adostu baitzuten.

Udal-gobernuak espero du aurten behin betiko onestea HAPO berria, eta horrekin batera Etxebizitza Plan berria. Horrexegatik, aurrekontu honek 3.150.000 euro gehitzea aurreikusiko du, finantzaketa babesten joateko asmoz. "Halaber, beste dirulaguntza-ildo bat sortuko da etxebizitzaren arloan, alokairua sustatzeko. Hala, emantzipaziorako laguntzetarako lehendik dagoen ildoarekin batera, 400.000 euro bideratuko dira xede horretarako. Hau da, %60 gehituko da aurrekontua", azaldu zuen Ogasuneko zinegotzi den Ignacio Uriartek.

Hona hemen inbertsio nagusietako batzuk: 1.000.000 euro Sal-siduko 9 arrapalak hobetzeko eta 610.000 euro Bidezabaleko bi arrapaletarako; 750.000 euro Iturribarri udal-lurzatian eguneko arreta emateko eraikin bat edo etxebizitza komunitario bat eraikitzeke; 1.585.000 euro Udalaren eraldaketa digitalerako (7 milioi euroko guztizkotik); 450.000 euro Areetako Andres Isasi Musika Eskolan aeroterma-sistema instalatzeko; eta osoko bilkurako mozioaren batean on-



UDALAREN ETA ERAKUNDE AUTONOMOEN AURREKONTUA

• Udala	102.519.463€
• Getxo Kirolak	11.467.035€
• Getxo Kultura (Musika Eskola barne)	14.045.978€
• Jesusen Bihotza Egoitza	6.868.660€
• Punta Begoña Galeriak	984.477€
• Kirol Portua	1.296.500€

tsitakoak, hala nola 140.000 euro Bihotz Alai plaza estetikoki egokitzeko; 1.200.000 euro poligono gorrian beste kultura- nahiz gizarte-zentro bat irekitzeko (2026an hasiko da); 90.000 euroko gehikuntza merkataritzako subentzietarako; 745.000 euro ikastetxe publiko guztietako instalazioak mantendu eta hobetzeko; 7.500.000 euro Faduran atletismo, belodromo eta errugbiko harmailen eraikin berria batera finantzatzeko; hiri-autobusaren zerbitzua abian jartzeko, Las Mercedes kalean beste aparkaleku bat eraikitzeke eta Etxeko Laguntza eta atsedeen Zerbitzua berrikusteko.

Zuzenketak

EH-Bilduk eta Elkarrekin Podemosen bi osoko zuzenketa aurkeztu zituzten, baina ez zituzten onartu; gauza bera gertatu zen EH-Bilduren 52 eta Elkarrekin Podemosen 36 zuzenketa partzialekin.

PPk aurkeztutako 17 zuzenketa partzial onartu ziren, besteak beste,

lehenago aipatutakoak: arrapalak berritzea, Iturribarriko eraikin berria eraikitzea; elkarte solidarioei emandako dirulaguntzak gehitzea; Ereaga ingurua, Arriluze eta Txomintxuko biribilguneen artean, era-berritzeko proiektua egitea; kalean bost aparkaleku-plaza jartzea zerbizugune elektriko bezala; Portu Zaharreko landan maskor akustikoa duen agertokia jartzea; Algortako geltoki-plazan beste komun publiko bat jartzea; Galean 15-20 plaza-ko autokarabanetarako aparkalekuaren proba pilotua egitea...

EH-Bilduren baztertutako proposamenen artean, besteak beste, honako hauek zeuden: udal-lursailetan alokairurako etxebizitza sozialak eraikitzea eta hutsik dauden etxebizitzak mobilizatzeko nahiz horiei kanona aplikatzeko plana egitea; auzo-taxi zerbitzua mugikortasun urria duten pertsonentzat eta Getxobusa; ikastetxeen inguruetak kale guztiak oinezkoentzat egitea; Aldapan eta Andra Marin zentro

komunitarioak egitea; Mimenagako ibarra berreskuratzea; merkataritza bultzatzea; etakultura, kirol- nahiz gizarte-taldeentzako dirulaguntzak %10 handitzea.

Elkarrekin Podemosen proposamenak, hauek ere baztertuak: Sarrikobasoko etxebizitzetarako konponbidea, lursailak erosita; hutsik dauden etxebizitzetarako kanona eta Getxon tentsio handiko eremuak deklaratzeko azterlana; ikastetxeetan inbertsio gehiago egitea eta bidegorri gehiago.

Balorazioa eta eztabaida

EH-Bildu eta Podemos taldeen ustetan, "Getxok aurrekontu kontinuitate izango ditu beste behin eta ez die bere beharriak erantzuten; ez dauka ez etxebizitza-planik, ez hutsik dauden etxebizitzak mobilizatzeko planik; hezkuntza publikoa ahultzen du; eta ez du planteatzen energia-trantsizioa bultzatzeko edo klima-aldaketa murrizteko ekintzarik".

PPk hauxe esan zuen: "batzen gaituena lortu nahi du alderdi honek eta, 2024an bezala, aurrekontu-akordioak berekin dakar herritarren beharriak erantzutea tasak eta zergak handitu barik. Funtsean, Getxok aurrera egin ahalko du akordio honi eta gure proposamenei esker".

Bestalde, EAJ/PNV eta PSE-EEK hauxe nabarmendu zuten: "udal-korporazioaren %72k sinatu du akordio hau, eta herritarren eskaera nagusiei eta Legegintzaldi-planean jada jasotako inbertsio estrategikoei erantzuten die. Orain arte Getxon egon den aurrekonturik handiena da eta ekimen garrantzitsuak lehenetsiko dira irigarritasunaren alorrean; gazteentzako etxebizitza bultzatuko da; eta mendokotasuna duten adinekoen arreta hobetuko da, besteak beste".



URTARRILAK 2 OSTEGUNA

Antzerkia. 18:00etan, Romo Kultur Etxean, "Kontukantari bi, mendian ibiltari", MAuMA Elkartearekin (euskaraz). 5€.

URTARRILAK 3 OSTIRALA

Kontzertua. 20:00etan, Muxikebarrin, gospel kontzertua Izar Gospel Unity-rekin. Adin guztientzat. Sarrera: 5€.

Antzerkia. 18:00etan, Romo Kultur Etxean, "Hansel y Gretel", Higiénico Papel Teatrorrekin (gaztelaniaz). 5€.

URTARRILAK 4 LARUNBATA

Bertsolaritza. 19:30ean, Muxikebarrin, "Tabuen kutxatik oholtzara", musika eta bertsolarien ikuskizuna Inurri Minbiziaren aurkako Elkarteko kideen esperientziak kontatzeko. Sarrera: 5€.

Antzerkia. 18:00h, Romo Kultur Etxean, "Y los sueños... libros son", Producciones Kinserrekin (gaztelaniaz). 5€.

Kontzertua. 18:00h, Kristo Erosle parrokiaren, Romanzas de Zarzuela Zarzuelako erromantzen kontzertu lirikoa eta Carlos Guastavino musikari argentinarraren konposizioak, Patricia Sesar (sopranoa) eta Gexan Etxaberen

(baritonoa) eskutik. Sarrera doan lekua bete arte.

URTARRILAK 5 IGANDEA

Erregeen Desfilea. 17:30ean, Andra Mari-Algorta ibilbidea, eta 19:30ean, Romo-Areeta ibilbidea. Amaitutakoan, Erregeen harrera Algortako Musika Eskolan eta Romo Kultur Etxean.

URTARRILAK 9 OSTEGUNA

Kontzertua. Neguan Flamenco zikloa. 20:30ean, Muxikebarrin, Alicia Morales (flamenko-kantaria) eta Antonia Jiménez (gitarra) "Neguan Flamenco" zikloaren barruan. Sarrera Muxikebarrin jaso beharreko gonbidapenarekin.

URTARRILAK 10 OSTIRALA

Zirkua. 20:00etan, Muxikebarrin, "Leinu" Berdinki Zirku Garaiak eskainiko duen akrobazia ikuskizuna (euskaraz), adin guztientzat. Sarrera: 6€.

URTARRILAK 11 LARUNBATA

Umores antzerkia. 20:00etan, Muxikebarrin, Oscar Terolek "¡Ay Dios!" komedia antzertuko du (gaztelaniaz). Sarrera: 10€.

URTARRILAK 12 IGANDEA

Komedia musikala. 16:30ean eta 19:00etan, Muxikebarrin, "Go!Azen" komedia musikala Pausokarekin (euskaraz). Sarrera: 8€.

Beste 222.000 euro Gurutze Gorria, Argia Fundazioa, Sarekide eta DalecandELarentzat

760.000 euro Bidezabaleko 1. eta 2. arrapalak eta Ereagako igogailua berritzeko

Udaleko alderdi politiko guztiek aho batez onartu zuten, 2024ko azken osoko bilkuran, 760.000 euroko kreditu gehigarria Bidezabaleko 1. eta 2. arrapalak (behekoak) eta Ereagako igogailua berritzeko lanak finantzatzeko. Lehenengo kasuan, 610.000 euro inbertituko dira, eta bigarrenean, 150.000 euro. Puntu hori Udal Gobernuak (EAJ/PNV eta PSE-EE) eta PPK 2025eko Aurrekontu Orokorra onartzeko lortutako akordioaren emaitza da. Gogoratu zen, gainera, Bidezabaleko 3. eta 4. arrapaletako obrak, zurrerik, datorren urteko lehen hiruhilekoan egingo direla.

Diru-laguntzak

Osoko bilkuran ere onartu zen, akordio beraren ondorioz eta alderdi politiko guztien aldeko botoekin, Elkarrekin Podemos izan ezik, abstenitu egin baitzen, Gizarte Kohezioaren Arloarekin lotutako zenbait erakunderekin mantentzen diren hitzarmenen finantzaketa handitzea. Hala, Gurutze Gorriak, Sarekide Boluntariotza-erakundearen elkarrekin eta Argia Fundazioak 100.000, 17.000 eta 5.000 euro jasoko dituzte, hurrenez hurren. Gainera, DalecandELA elkarrekin, AEA (ELA) ikusa-



razteko eta gaixotasunari aurre egiteko ikerketarako dirua biltzeko 100.000 euro jasoko ditu, lehen aldiz, Dale Candela Fest jaialdia antolatuzeko.

Gurutze Gorriaren kasuan, garatzen dituen programak babestu nahi dira, besteak beste, familiekin (518rekin esku hartzen du), adinekoekin, gazteekin eta abarrekin. Argia Fundazioaren kasuan, partida Klub Soziala proiektuari zuzentzen zaio, eta Sarekideri dagokionez, berriaz, elkarrekin biltzen dituen erakundeak kudeatzeko liberatutako langileen orduak handitzeari.

Era berean, aho batez erabaki zen Getxo Enpresari 30.000 euroko diru-laguntza ematea Getxo Moda lehiaketarako, eta beste 60.000 euro merkatarien elkarrekin ekintzetarako.

Bestalde, osoko bilkura horretan, Bozeramaileen Ba-

tzordeak Euskararen Nazioarteko Eguna dela eta onartutako Adierazpen Institutuzionalaren berri eman zen. Adierazpen hori talde politiko guztien babesarekin onartu zen, EH-Bildu izan ezik, aurka agertu baitzen.

Moziok

Mozioren atalean, bi onartu ziren aho batez: lehenengoa, EH-Bildurengandik abiatu zen eta Udal Gobernuak transakzionatu zuen, banatzaile elektrikoari Aldapa auzoko linea elektrikoa lurperatzeko beharrezko jarduerak egin ditzala eskatzeko, bi aldean artean koordinatuta eta planifikatuta lan eginez. Bigarrena, Elkarrekin Podemosetik abiatu zen, eta Udal Gobernuak ere transakzionatu zuen. Horren arabera, Udalak konpromisoa hartzen du 2025ean sentsibilizazio-kanpaina bat programatzeko, herritar guztiei zuzenduta, haurren espazioetan alkoholik eta/edo tabakorik ez kontsumitzearen garrantziari buruz.

Urte batzuk lehenago bezala, etenalditxoak egin zen osoko bilkuran, San Inazio ikastetxe-ko ikasleek Udalbatzari Udaltxeko hallean abestu zizkioten gabon kantak entzuteko.

Villamonteko 2019ko prozesuari dagokionez

Sarrikobasoko Getxo Txukun prozesuan izandako parte-hartzea %42 igo da eta egindako proposamenen kopurua %79

Getxo Txukunen helburuarekin bat etorritik, obra txikien iradokizunak egitea, alegia, azpiegiturak hobetzei buruzko proposamenak izan dira nagusi azken Getxo Txukun parte-hartze prozesuan. Iradokizunak aurkeztea zen helburua, kasu honetan Sarrikobasoko eremu batean, zehazki Bidezabal, Beato Domingo Iturrate, Salsidu eta Ollarretxe kaleek mugatutako eremuan.

315 eskuorri jaso dira, eta 679 ekarpen jaso dira. Horrek esan nahi du eskuorri bakoitzeko, batez beste, bi proposamen baino gehiago egin direla. Proposamen gehienak, 645 (%94,99), Sarrikobasori buruzkoak izan dira, eta guztiak dagozkien arloetara bi-

dali dira. Baloratu ondoren, azterketa teknikoak erabakiko du proposamena bideragarria den. Dagokion eremutik kanpo kokatu direnak, 34, bildu dira eta aztertuko dira, baina ez dira prozesu horren esparruan egingo. "Udala oso pozik dago parte hartzearekin; izan ere, 2019ko Getxo Txukun eremuarekin alderatuta (Villamonte ingurua), %42,5 igo da eta proposamenen kopurua %79", Gorka Mostajo Partai-

detzako zinegotziak adierazi duenez.

Egindako proposamen gehienak Azpiegitura eta Ingurumen arloarekin lotuta zeuden (arrapala mekanikoak, espaloiak, asfaltatzea, hiri-altzariak, garbiketa eta lorezaintza, parke elektrikoak etab.). Udaltzaingoarentzat ere izan dira iradokizunak (herritarren segurtasuna edo poliziaren presentzia hobetzea eta txakurren gorozkiak ez jasotzea kontrolatzea). Zeregin horiek egiten ari dira dagoeneko. Datu guztiak prozesatzen direnean, itzulketa-dokumentu bat argitaratuko da Zeugaz plataforman, eta prozesua gauzatu den inguruko bizi-lagunei liburuxka bat utziko zaie postontzietan.



Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jaularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

STAFF Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizitzari lotutako albisteak eta informazioak agertzen dira astero.

Erredakzioa: Nekane Ardanza. Monika Rodrigo, Iñigo Olondo. Urgull kalea z.g., 4. Tel. 94 466 03 20. 48991 Getxo. e-posta: getxokoudalaprensa@getxo.eus Arte arduradunak: Diseinu eta Komunikazioa Aulesti SL. Inprimaketa: Comeco Gráfico Norte, S.L.U. Banaketa: Mediapost. Gordailu legala: BI-388-87

Erredaktoreburua: Itziar Aguayo.

Gabonetan zikloaren amaiera

Romo Kultur Etxean (RKE) familientzako eta haurrentzako ikuskizunak eskaintzen dituen Gabonetan zikloaren antzerki-programazioak amaiera emango dio larunbat honetan, urtarrilak 4, Producciones Kinser-en eskutik, *Y los sueños...* libros son antzezlanaren gaztelaniazko emanaldiarekin. Julio Verne idazlearen istorio ezagunenen inguruko antzerki ibilbidea da, zuzeneko abestekin eta publikoarekiko interakzioarekin. Blanca Resanoren zuzendaritzapean, Silvia García eta Jacobo Castanera antzetzten dute.

Ziklo beraren barruan, egun bat lehenago, hilaren 3an, ostirala, *Hansel y Gretel* obraren txanda izango da, Higiéncio Papel Teatro konpainiarekin, hori ere gaztelaniaz. Grimm anaien klasikoaren oso ikuspegi pertsonala da, eta muga bakarra gure irudimena duten munduak sortzeko behar dugun apurra erakusten digu; eta bereziki 5 urtetik gorako haurrei zuzenduta dago.

Eta ostegunean, hilak 2, euskaraz antzetzuko da *Kontukantari bi, mendian ibiltari*, MAuMA Elkartearekin.

Emanaldi guztiak 18:00etan hasiko dira, eta sarrerak 5 euro balio du.



Errege paje batek gutunak jasoko dizkie bere maiestateei urtarrilaren 3, 4 eta 5ean

Ekialdeko Errege Magoak Getxora hurbiltzen ari dira

Ekialdeko Errege Magoek Getxorako bideari ekin diote, eta igande honetan, urtarrilak 5, egingo dute ohiko Kabalgata. Duela urte batzuk bezala, bi ibilbide egongo dira eta zortzi karroza berdinetan parte hartuko dute.

17:30ean, desfilea Andra Mari kiroldegitik abiatuko da eta Algortako kasinoan amaituko da, Maidagan, Angel etorbidea, Telletxe eta Maria Andresena kaleak igaro eta gero. Ondoren, Areetara hurbilduko da eta 19:30ean Gobelaurretik irtengo da eta Gorbea mendia, Kresaltzu, Ezequiel Agirre, Las Mercedes, Areea etorbidea eta Zugatzarte zeharkatuko ditu. Bi kabalgatak amaitzean, erregeek haurrak hartuko dituzte Muxikebarrin eta Romo Kultur Etxean.

Gutunak jasotzea

Gainera, aurten errege paje bat ibiliko da kaleetan bizikletaz, hi-

laren 3, 4 eta 5ean, haurrek beren maiestateei idatzitako gutunak jasotzeko. **Hilaren 3an:** 11:00etan, Andra Mari kiroldegian; 11:30ean, Bidezabal parkean; 12:30ean, Aldapa parkean; 13:30ean, Algortako Geltokia plazan; 17:00etan, Negurin, metro geltokiko plazaren ondoan; 17:30ean, Gernika parkean; 18:30ean, Romoko Santa Eugenia plazan eta 19:30ean, Areetako Eskoletako plazan. **Hilaren**

4an: 11:00etan, Areetako Geltokia plazan; 11:30ean, Romoko Santa Eugenia plazan; 12:30ean, Gernika parkean; 13:30ean, Negurin, metro geltokiko plazaren ondoan; 17:00etan, Andra Mari kiroldegian; 17:30ean, Bidezabal parkean; 18:30ean, Aldapa parkean; eta 19:30ean, Algortako San Nikolas plazan. Eta **hilaren 5ean:** 11:00etan, Areetako Geltokia plazan eta 13:00etan, San Nikolas plazan.

Alicia Moralesek eta Antonia Jimenezek irekiko dute “Neguan Flamenco” zikloa

Neguan Flamenco zikloaren laugarren edizioa ostegunean, hilak 9, hasiko da Muxikebarrin. Alicia Morales kantaria arituko da, Antonia Jimenez flamenko eszenako gitarra-jotzaile eta konpositore ezagunenarekin batera.

Alicia Moralesen ahots-kordek Granadaren esentzia azaleratzen dute, eta flamenko kantari horren



ibilbidea Miguel Hernandez Saria babestu du.

Neguan Flamenco zikloaren helburua abangoardia eta tradizioa uztartzea da emakumeak buru dituzten topaketa horietan guztietan.

Kontzertua 20:30ean hasiko da eta sarrera Muxikebarrin jasotzeko gonbidapenarekin izango da.



Izar Gospel Unity eta Patricia Sesar eta Gexan Etxaberen kontzertuak 2025eko musika abiarazteko

Izar Gospel Unity taldeak ostiral honetan, hilak 3, Muxikebarrin aurkeztuko du publiko guztiari zuzendutako *Right Now!* izeneko ikuskizuna. Kontzertua 20:00etan hasiko da eta sarrerak 5 euro balio du. Emozioz beteriko musikala da, eta jendeari gospelaren gaitasun askatzailea transmititu nahi zaio. Bestalde, Patricia Sesar sopranoak eta Gexan Etxabe baritonoak zarzuela erromantzen eta Carlos Guastavino musikari argentinarren konposizioen kontzertu lirikoak eskainiko dute. Larunbat honetan, hilak 4, izango da, 18:00etan, Algortako Kristo Erosle parrokan, eta sarrera libre izango da lekua bete arte.



“Terranova. La odisea ballenera”, Sabino Lauciricaren liburu berria

Sabino Laucirica merkataritza ontzidiaren kapitainak, historialari eta idazleak, Villamonteko Kultur Aretan aurkeztu du duela gutxi bere liburu berria, *Terranova. La odisea ballenera*. Ezinbesteko liburu da iparraldeko itsasertzeko itsasgizon guztiek eta, batez ere, euskaldunek, Ternuako eta Labradorko ur hotzetan egindako balentria ezagutzeko. Hain zuzen ere, bere itsas ikerketak dira, bereziki euskal baleazaleek aipatutako parajeetan bizi izandako odiseari buruzkoak, prentsa-artikulu askotan eta Lauciricak berak eskaini edo parte hartu duen hitzaldi askotan zabaltzen direnak.

Udalak 238.056 euro bantuko ditu Gizarte Kohesioan diharduten 45 entitateren artean

Asoziazionismoari eta boluntariotzari laguntzen jarraitzea eta parte-hartzea eta elkartasuna sustatzea izango dira berriro ere Gizarte Kohesioaren alorrean aritzen diren entitateei Udalak ematen dizkien diru-laguntzen helburuak. Aurten 238.056 euro banatuko ditu 45 entitateren artean. Deialdi bakar batean ematen diren laguntzei esker, kalitate handiagoko proiektuak egin daitezke, eta hainbat elkarte sarean lan egin ahal izango dute, elkarbizitzaren aldeko esku-hartze komunitarioaren mesedetan.

“Hirugarren sektoreko erakundeek egiten duten lana Getxon parte-hartzea, inklusioa eta elkartasuna sustatzeko aukera bat dela uste dugu. Horregatik, diru-laguntza hauen bidez, erakundeen eta haien proiektuen parte-hartzea babesten jarraitzen dugu, gure bizilagunen bizi-kalitatea hobetzen laguntzen baitute. Azken batean, Getxo inklusiboagoa eta berdintasunezkoagoa eraikitzeko konpromisoa hartu duten herritarren adibide garbia dira”, Carmen Díaz Gizarte Kohesiozko zinegotziak nabarmendu duenez.

Lehen ildoak, 115.490 euro banatuko ditu 45 eskaeraren artean, asoziazionismoa sustatzeko eta indartzeko, eta Gizarte Kohesioaren arloari lotutako Getxoko erakundeen mantentze-, funtzionamendu- eta indartze-gastuei aurre egiteko.

Bestalde, Gizarte Kohesioaren eremuko intereseko proiektuak finantzatzera bideratutako biga-



ren lerroak 119.565 euro banatuko ditu udalerriko erakundeen 13 proiekturen artean, 2A lerroan.

Azkenik, 3.000 euro banatuko dira 2.B lineako beste hiru proiektutarako, udalerritik kanpoko erakunderentzat, baldin eta haien

jardueraren onuradun Getxoko bizilagunak badira.

1. linearen kasuan, justifikazioak aurkezteko gehieneko epea 2025eko otsailaren 28an amaituko da, eta 2. linearen kasuan, erakundeek, ebazpenaren datatik aurrera,

12 hilabete izango dituzte gauzatzeko, eta hilabete bat jarduera amaitzen denetik justifikatzeko. Finantzatutako proiektuaren % 100 justifikatu beharko da.

Informazio gehiago udal web gunean: <https://labur.eus/iPeEU>

Pilates solidarioa Valentziaren alde, Sarekide Elkarteak antolatuta

Getxoko boluntariotza erakundeek, Sarekidek, Udalarekin eta Arri Pilates & Wellnesekin elkarlanean, Pilatesen Masterclass solidarioa antolatu du Valentziaren alde, Erkidego hori iaz astindu zuen DANAREN ondorioei aurre egiteko. Ekimena datoren igandean, urtarrilaren 12an, egingo da Fadurako Udal Kiroldegian, 11:30etik 13:30etara.



Masterclass saiorako izen-emateak 10 euroko prezioa du eta boluntariotza elkarteak bertan biltzen duen diru guztia Valentziako Erkidegoko Boluntarioen Plataformara bideratuko da.

Izen-emateak edo dohaintzak egiteko: Sarekideren web orriaren bidez: <http://www.sarekide-getxo.org/>



Getxo Enpresaren Gabonetako Erakusleihen Lehiaketako sariak banatu dira

Hauek izan dira Getxoko Erakusleihen Lehiaketaren 34. edizioko lau kategorietako irabazleak: Mimarte.shop, erakusleho fisiko onena; Oroitu arreta espezializatuko zentroa, erakusleho birtual onena; Mertzeria Blonda II, erakusleho jasangarriagoko kategoria bereziko saria; eta Aristegui farmazia, bezeroak hobekien erakartzen eta konektatzen dituen erakusleho birtual saria. Garden y Nostalgia eta Gaurko establezimenduek bigarren eta hirugarren postua lortu dute erakusleho fisikoen kategorian, eta Tipula Algortaren eta Vito 52ren webguneak eta profilak, bigarren eta hirugarren erakusleho birtual onenarenak. 125 proposamen baino gehiago aurkeztu dira lehiaketara. Kontsultatzeko: www.getxoimpresa.com



Getxok “ezustean” saritu ditu Gabonetako erosketak 50 euroko bonuekin eta turismo eta kirol esperientziekin

20 euroko erosketa baten truke, getxotarrek sari paregabeak eraman ahal izan dituzte gabon hauetarako, Udaleren Ekonomia Sustapen sailak abian jarritako *Gabon magikoak, opari paregabeak* kanpainari esker. Zehazki, 50 euroko deskontuko bonuak banatu dira hainbat saltokitan zuzenean trukatzeko eta 2025ean zehar herriko turismo eta kirol enpresetan gozatzeko esperientziak ere oparitu dira: surf bataioak, parapentea, hipika klaseak, yoga, flyschetik irteerak, Zubi Esekiko pasabidetik igarotzea edo Punta Begoña galerietan bisita gidatuak. Gainera, kanpainarekin bat egin duten saltokietan, Alex Orbe artista getxotarrak ilustratutako 5.000 libreta banatu dira.